# ETXAGOK AMA BEGIRA

152. ZKIA. - 2011KO URRIA

# UDAZKENA

# AURKIBIDEA

Batetik Bestera argazki lehiaketa .................................. 03
Kantari saioaren grabazioa .......................................... 04
Diskofesta ...................................................................... 05
XVII. Futbolin txapelketa ............................................. 06
Txapa txapelketa Kuboan ............................................ 07
Sotoa zabalik ................................................................. 08
Gaztemaniak: Electric Boys + Talde gonbidatua .......... 10
Gazte informazioa ........................................................ 12

## XVII. XAKE TXAPELKETA

**ADI XAKE ZALEOK!**



**Azaroaren 19an, zapatua, Gaztelekuko XVII. Xake Txapelketa ospatuko da, Gaztelekuko txapelketen aitzindaria (futbolinarekin batera). Jokua, ohi bezala, suitzar erara jokatuko da 6 itzulitara. Emango dizuegu xehetasun gehiagoren berri, baina hasi zuen burmuin eta estrategiak martxan jartzen. 1035 €uro banatuko dira saritan, hamaiketakoa izango duzue, eta urtero bezala, giro bikaina izango denaren zalantzarik ez dugu egiten. Jaaaaaaake!**

## TOPALEKUKO EGITARAUA

# BATETIK BESTERA ERAKUSKETA

Gaztelekuak antolatutako Batetik Bestera argazki lehiaketara zuen lanak aurkezteko epea amaitu zen, eta orain, aurkeztu diren lanak publikoki ikusgai jartzeko ordua heldu zaigu. Aurtengo edizio honetan 5 argazkilari gaztek hartu dute parte, eta guztira 15 lan izango dira ikusgai Urriaren 7tik 21era Gaztelekuko Kuboan. Erakusketa astelehenetik ostiralera izango da zabalik arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara. Bertara hurbiltzen zaretenok gehien gustatu zaizkizuen bi argazkiak bozkatu ahal izango dituzue, bozka gehien jasotzen dituzten biak izango direlarik irabazle (150 eta 100 euroko sari bana, pilatuezinak direnak).



OHARRA: Urriaren 15ean eta 16an ez da ohiko Soto, Kubo eta Topaleku zerbitzurik egongo

# KANTARI saioaren grabaketa GAZTELEKUAN

Urriaren 15 eta 16an, Goiena Telebistan ikusi ahal izango den KANTARI saioa grabatuko da aurten ere Oñatiko Gaztelekuan. Aurreko edizioetan bezalaxe, Oñatiko gaztetxoek horrenbeste entsegatu dituzten abesti eta koreografiak ikusleen aurrean erakutsiko dituzte Topalekuko eskenatokian. Saioa Amaia Txintxurreta oñatiarrak zuzentzen du, eta koreografo lanetan Maite Albes ibiltzen da.




TOPALEKUKO EGITARAUA
DISKOFESTA
SOUND PROJECT Dj-ekin
Urriaren 22an, zapatua, 18:30etan


TOPALEKUKO EGITARAUA
GAZTELEKUKO
XVII.
FUTBOLIN
TXAPELKETA
Urriaren 28an
OSTIRALA
18:00etan
Izen-emate epea:
Txapelketa hasi arte


KUBOKO EGITARAUA
TXAPA
TXAPELKETA
URRIAREN 8AN, ZAPATUA, 17:00etan
ONDO PASATZEKO AZPIEGITURA HANDIRIK EZ
DELA BEHAR ASKOTAN FROGATU DUGU GAZTELEKUAN,
ETA ORAINGOAN ERE ILDO HORRETATIK JOKO DUGU. BOTILEN TXAPAK
ERABILIZ, ETA PUNTUAKETA SISTEMA BATEAN OINARRITUZ, PARETATIK
GERTUEN DAGOENAK JASOKO DU PUNTU GEHIEN, ETA AMAIERAN
PUNTUAKETA ONENA JASO DUENA SUERTATUKO DA GARAILE. BATU
ITZAZUE BERAZ, ZUEN TXAPA KUTTUNENAK, ETA ANIMA ZAITEZTE
ZUEN PUNTERIA FROGATZERA.
IZEN-EMATE EPEA: Txapelketa hasi arte

# SOTOA

## Urriaren 8tik aurrera berriz ateak zabalik

Gogoratzen dizuegu Urriaren 8an, eta jaien ajeak pasata, Gaztelekuko Soto zerbitzuak berriz ateak zabalduko dituela. Sotoa 7 urterainoko haurrentzat Gaztelekuak negu partean zabaltzen duen txokoa da, baina gogoratu haurrarekin batera arduradunen bat egon beharko dela.





**Asteburu eta jaiegunetan 10:30-13:00 / 17:00-20:00**










Electric Boys
+ talde gonbidatua
Azaroaren 5ean, zapatua, 22:30etan

Hona hemen aurtengo Gaztemaniak zikloko gure bigarren kontzertua: Electric Boys. Talde suediar hau 1988an sortu zuten, Estokolmen, Conny Bloom (gitarra eta ahotsa) eta Andy Christell (bajua) lagunek, eta berahala bildu zitzaien Franco Santunione (gitarra) eta Niclas Sigevall (bateria). 1989an “Funk-O-Metal Carpet Ride” lehen diskoa kaleratu zuten, eta arrakasta garrantzitsua lortu zuten “All Lips N’ Hips” singlearekin. Gero “Groovus Maximus” (1992) eta “Freewheelin” (1994) diskoak etorri ziren. Baina disko berria atera eta berehala taldeak desegitea erabaki zuen. 2009an, ordea, lau musikariak berriro elkartu ziren eta disko bat sortzeari ekin zioten, zuzenekoak ematen zituzten bitartean. Hala, aurten kaleratu da “And Tem Boys Done Swand” lan bikaina. Badirudi funk-metal estiloaren aitzindari hauek ez dutela ahaztu 80. hamarkadan ikasi zuten guztia.



gazte
INFORMAZIO PUNTUA

Oñatiko Gaztelekua - Foruen enparantza 4
943 718 257 - gazteinformazioa@oinati.net

# LEHIAKETAK

- “Acuarelas de viaje/Cuadernos de viaje” Lehiaketa. GeoPlanet argitaletxea. Epea: Urriaren 31ª.

- IV. Mendi Film festibal lehiaketa. Araba Ascentium. Epea: Urriak 15.

- Arrigorriagako III. Argazki Lehiaketa. Arrigorriagako gazte informazio bulegoa. Epea: Urriak 14.

- Barakaldoko V. Pop-Rock lehiaketa. Barakaldoko Udala. Epea: Urriak 15.

- “Corto y Cambio” film laburren lehiaketa. Boluntario-tzaren Euskal Kontseilua. Epea: Azaroaren 15a.

- II. Gaztezulo Bideo lehiaketa. Gaztezulo aldizkaria. Epea: Azarok 15.

- Bidaia eta Mendi kroniken lehiaketa 2011. Berria . Epea: Azaroak 13.
-

... eta informazio gehiago Gazte Informazio Puntuan.